

# Ondoko geltokia: esperantza



BEIA SALABERRI  
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

**T**rambusaren ateak lerratu dira, zabalik utziz pasaia jaisten den jendeari. Kaia dei genezakeen espaloian, bi lerrotan antolatuta gara: igo nahi dutenak batetik eta bestetik jaisten direnak. Azkenean, txanda heldu zaidanean igaiteko, hogeita zenbait urteko emazte bat aitzinatu zait hozki; agian jarleku bat ukaitea segurtatzeko, hala uste izan dut. Doblatsu nauenean, haren mugimendu idorraz ohartu naiz, haren hazpegi gogortuez, haren ezpainen tinkotasunez. Eta hark jarleku bat aurkitu du; nik ez. Geltokiz geltoki goazela, haren aire satisfosa uste dudanari, erantzun diot kasik mespretxuz, haren gainaldean, beroaren eta autobusaren bultzen erdian, betaurreko beltzak berriz hozkan ezarriz.

Lau geldialdiren ondotik, ohartu naiz negarrez ari dela, harrabotsik gabe, ur xirriztak begietatik ateratzen zaizkio tai gabe, aurpegiko beste gihar bakarra mugitu gabe. Noiztenka, ahurrean tinkatzen duen paperezko mokanesaz xukatzen ditu malko iturriak. Momentu baten buruko, mokanesa blaiturik, gainezka ikusi dut esku beteaz matelak torratzen.

Hastapenean, ene jarrera aiuta eta arras gehiegizkoarengatik negar egin

lezakeela pentsatu badut ere, argi dut orain ez dela hainbesteko etsipenaren arrazoa izan. Eta hor sinets ala ez, ez dut jakin zer egin.

Ni bezalako pertsonak ez dute lotsarik, ezezagunei zuzentzeko, adibidez; ez gara beldur ez poliziak gurutzatzean, ez seguritate arduradunek begiratzen digutenean, ez kontrolatzaileen taldea autobusera igotzen denean. Oker naitzenean edota kitzikatzen nautenean ez naiz erantzuteko lotsa. Egia da, ene erantzunek, tupustekoek sustut, badutela hitz-tirokadaren antza zenbaitetan, ez direla beti egokiak, ez pausatua, gaiztoak berdin. Eta, putxaz, pena eman nezake, hain harro, mutu, galdu eta inutil.

Mokanesik ez niezaioke eskaini, ez baitut, eta auskalo nola hartuko lukeen, gainera, haren pena hain ikusgai utz dezadan, galaraz diezaiodan tristezia ia ikusezin duin hori. Ondoan duena, ni baino lehenago ohartua zen segurki, edo beharbada ez oraindik, sudurra smartphoneari kolaturik dago, behakorik altxa gabe. Parekoa, duda izpirik gabe egoeraz oharturik, egunkaria ahal bezainbat eta anormalki gora altxatuz irakurtzen ari da, gorderik paperezko hesiaren gibelaldean.

Mekanikoki, altxatua den egunkariko titular eta idazpuruak leitu ditut, hutsalki: erretreten erreformari men ez egin; ezker-rra KO ote; ZAD: Frantziaren barne etsai berria; BRAV-M: nor dira eta zertarako; 18-60 urtekoen artean, %13 depresioan. Horretan gelditu naiz, ez baita, agian, hori baino anitzez urrunago bilatu behar isilik eta uharka negar egiteko arrazoirik.

Autobus eta garraio publikoek orokorrean, ikerketa soziologikoak horni ditzakete urteetan zehar, horretaz ez dudarik aspaldian, ez baita gertatzen egunik zer konta ematen ez dutenik. Gaur, bakoitza egon da bere erredola pertsonalarekin, dela betaurreko, dela egunkari, dela telefono, dela mokanes. Elkar lagun genezakeen, hitz zenbaitekin, keinu batez, kuraia desiratuz elkarri. Horren ordez, beste guztiak jaitsi eta gero ere, azken geltokiraino irauin dut, xutik, kasik penitentziaz bezala.

Zutabe hauen artera itzultzea ospatzeko eta horrek ematen didan pozaren adierazteko, gertakari alaiago zenbait konta nezakeen? Egia da. Baina iragan negu eta udaberriaren zehar gertatuek ez didate oxitoxina tasa zapartarazi, ez. Eta, jakina, gauza alaiak ez ohi naute berdin inspiratu. ●